

Laudioko Udala

Goi mailako Arkitekto lanetan aldi baterako zerbitzuak prestatzeko Lan Poltsa.

Laudio Udaleko Gobernu Batzarrak, 2015eko martxoaren 6an izandako bileran, ondorengo erabakia hartu du:

Onartzea lan poltsa bat sortzeko deialdiko ondorengo oinarriak Goi mailako Arkitektoa langile legez aldi baterako zerbitzuak prestatzeko.

Deialdiko oinarri arauak

Lehena.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen objektua da sortzea Goi mailako Arkitektoen lan poltsa bat, bitarteko funtzionarioa, A1 sailkapen taldea, lanpostu osagarria: 27, osagarri espezifiko: 25.408,27 euro, oposizio-Lehiaketa sistemaren bitartez.

Oposizio fasea gaindituko duten izangaiek osatuko dute eta parte izango dira lan poltsa batean, eskubidea emango diena, hautatze prozesuan lortutako puntuazioa hurrenkeran, deituak izateko arkitekto lanpostuan langile beharrian guztiak betetzeko, bai lanpostua hutsik geratzeagatik, bai oporren garaiagatik, bai ordezkapenengatik edo beste arazo batzuegatik.

2015 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorretako abenduaren 26ko 36/2014 Legeko 21. artikuluan xedatuta dakarrenarekin bat, bitarteko funtzionario langile izendatzeko oinarriok badira salbuespeneko kontratazioak egiteko eta Udaleko funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduari zuzenean eragiten diotela lehentasunezkoztat jotako premiazko, luza eta geroraezineko beharrianak eta funtzioak betetzeko (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25. eta 26. artikulua).

Bigarrena.- Lanpostuaren funtzioak: momentu bakoitzean funtzioen katalogoan indarrean daudenak eta horiek dira, gaur egun.

1.- Laudio Udaleko Plangintza Bulegoko Arduraduna:

- Udal-plangintzako figuren erredakzioa eta formulazioa, bere berrikuspenak eta aldaketak, barne hartuta hala egiturako antolamendua, nola xehatua.
- Udal-plangintzaren eta udal antolamenduaren erredakzioa, zuzendaritza eta kudeaketa eta betearazpena gainbegiratzea, lurzoruaren balorazio eta hirigintzako desjabetzeen gaineko txostenak barne hartuta.
- Hirigintzako antolamenduaren zuzendaritza eta gainbegiratzen garantia eta babesak, barne izanik hirigintza diziplina, hirigintzako legezketasuna berriro ezartzea eta eraikuntzaren kontrola.

2.- Gainbegiratzea udal administrazioaren esku-hartzea lurzoruaren merkatuan eta lurzoruaren udal ondare publikoaren kudeaketan.

3.- Babestea udalerriko kultur ondarea.

- 4.- Proiektu teknikoak, barne hartuta: proiektuen, aurreproiektuen eta balorazio memoriaren erredakzioa.
- 5.- Obra eta herrilaren zuzendaritza eta ikuskapena: barne hartuta lanen zuzendaritza eta kontrola, aktak eskaintzea, obra-ziurtagiriak, hirigintza agenteek egindako obra eta lanen kontrola.
- 6.- Herriko etxeko bulego teknikoaren kudeaketaren koordinazioa eta izapidetzen dituen proiektuena.
- 7.- Herritarren partaidetzako bulegoan arreta eta hirigintza informazioa ematea.
- 8.- Udal inbertsio programak erredaktatzea.
- 9.- Kanpo kontratazioko proiektuak eta hirigintzako figurak zuzentzea.
- 10.- Lurren mugimendu higadura edo eraikinen aurrirak kasuetan, egitea irizpen txosten geologikoa eta premiako izaeraz esku-hartzekoa.
- 11.- Udal arlo ezberdinetako gai espezifikoei horietako arduradunei aholkularitza tekniko eskaintzea, eskatuko zaizkion beste batzorde, bilera, e.a., bertaratuta.
- 12.- Udalerriz gaindiko eta udalerrirako barneko koordinazioa moldatuta, hala behar bada, programatu diren ekitaldi edota lan-bileretara egokitzeko.
- 13.- Bere nagusi hierarkikoen agindutako antzeko zeregin guztiak eta osagarriak, lanpostuaren zereginekin zerikusia dutenak.

Hirugarrena.- Izangaien betebeharrak.

a) Europar Batasuneko estaturen bateko naziotasuna izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen aplikazioaren indarrez, langileen zirkulazio askea aplikagarri zaiona.

Halaber, parte har dezakete Europar Batasuneko kide diren estatuak naziotasuna duten ezkontideek, betiere ez badaude auzi-bidez bereizita edo banatuta ez badaude; hala nola bere eta ezkontidearenak ondorengoak ere, beti ere, auzi-bidez banatuta ez badaude, 21 urtez beherakoak izan zein adin horretatik gorakoak izan edo gurasoen kontura bizi badira.

b) Hamasei urte (16) urte beteta izatea eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen eta derrigorreko erretiroa hartzeko adinera iritsi gabea izatea.

c) Edukitzea gaitasun funtzionala lanpostuko lan eta zeregin propioak egiteko, eta zentzu honetan, ez izatea akats fisiko edo gaixotasunik eragotziko diona lanpostuko funtzio eta betebeharrak propioak gauzatzeko, bazterketarik ezarri gabe muga fisiko edo psikikoengatik, zereginak eta funtzioak betetzearekin bateraezina diren kasuetan izan ezik.

d) Baztertuta ez izana diziplina-espeditu bidez inolako administrazio publiko eta autonomia erkidegoetako estatutu- edota konstituzio-organoen zerbitzutik, ezta auzitegi ebazpen edo epai bidez erabateko edo berariazko gaitasun gabetuta egotea ere kargu publiko

edo enpleguetarako, funtzionarioen kidego edo eskalatan sartzeko edota lan legeko langileen kasuan egikaritzen eta gauzatzen dituzten antzerako funtzio publikoak betetzeko. Beste Estatu batekoa izanez gero, ez izatea diziplina-zehapenen menpeko edo, berari dagokion Estatuan, enplegu publikorako sarbidea ukatzen dion zigor-kondenarik ez izatea.

e) Legezko ezgauza edo batera ezintasun kasuan sartuta ez egotea.

f) Titulazio akademiko honen jabe izatea.

Titulazioa: Goi Arkitektoa, Gradua Arkitekturan edo baliokidea, edo hori lortzeko baldintzatan (Titulua lortzeko eskubideak ordaindu izana) eskabide-orriak aurkezteko epea amaituko den unean.

Oinari honetan zerrendatutako betebeharrak eta eskakizun guztien jabe izan beharko da eskaerako aurkezteko epea amaitzen den egunean eta horiek zaindu eta mantendu hautaketa prozeduran zehar.

g) 4. hizkuntza eskakizuna edo euskara-titulazio baliokidearen jabe izatea. Betebeharrak hau egiaztatzeko, izangaiek dagokion frogak eta ariketak egin beharko dituzte. Froga horiek kalifikatuko dira: Gai ala Ez Gai.

4. hizkuntza eskakizunaren jabe direla egiaztatzen duten izangaiek ez dute nahitaez zertan froga hori egin beharrik izango. Horretarako, izangai horiek euren eskabide-orrian jasotako beharko dute inguruabar hori eta erantsi dagokion dokumentu egiaztatzailearen fotokopia konpulsatua edo originala.

h) B Motako gida-baimenaren jabe izatea.

Laugarrena.- Eskaerak aurkeztea.

Lan poltsan parte hartu nahi duten hautagai edo izangaiek eskabideak Audio Udaleko Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) doan eskuratu ahal izango den eskaera-ereduan hala jasota utzi behar dute (I. eranskina) eta Audio Udalaren web atarian www.audio.eus.

Oposizio-lehiaketan onartzeko eskabide-orriak alkate - udalburuari zuzenduko zaizkio, ondoko betebeharrak bete behar izanik:

a) Izangaiek jasota adierazi beharko dute bigarren oinarrian exijitutako baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituztela, eskabide-orriak aurkezteko azken egunari dagozkionak. Halaber, jasota utzi behar dira Lehiaketa fasean baloratu behar diren merezimenduak eta horiek egiaztatzeko dokumentuak erantsi beharko dira.

Eskabide-orrietan jasota adierazi behar dira:

- Pertsona-datuak osorik.
- Oposizio-aldiko ariketak egiteko hautatu den hizkuntza ofiziala, hau da, euskara ala gaztelania.
- Ezgaitasun motaren batek eragindako pertsonak inguruabar hori jasota adierazita utzi behar dute eta, hala bada kasua, zein egokitzapen tekniko behar duten hautaketa-probak egin ahal izateko.

Eskabide-orriari erantsi beharko zaio:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- Hautapen-prozesuan parte hartzeko exijitutako titulazio akademikoko fotokopia.
- Alegatutako merezimenduak zerrendatuko dituen aitorpena, horien dokumentu egiaztatzeak erantsita. Alegatu eta justifikatutakoez besteko merezimendurik ezin izango da baloratu, ez eskabideak aurkezteko epe barruan, ez beste batzuk, epe horren barruan alegatu arren, geroago justifikatuak izan badira.

b) Eskabideak aurkeztuko dira Audio Udaleko HAZen, 20 egun naturaleko epean, oinarri hauek ALHAOn argitaratura agertzen direnetik kontatzen hasita.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 38.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere entrega daitezke eskabideak.

Posta bulegoen bidez aurkezten diren eskabideak, ziurtatu aurretik, irekita eman behar zaizkio postako funtzionarioari, hark eguna jarri eta zigilua bota diezaien.

Izangaiak bere eskaeran eskainitako informazio guztia fitxategi batean sartuko da eta horren erabilera mugatuko da hautaketa prozesua kudeatzeko, aldi baterako kontratazioetarako sortuko diren lan poltsak kudeatzeko eta administrazio honetan zein lan poltsa honetako datuak lagatzea eskatzen duten beste administrazioetan bitarteko funtzionarioak izendatzeko. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua zorrozki doituko da Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta otsailaren 25eko Datuen Babeserako Euskal Agentzia sortu eta titulartasun publikoko izaera pertsonaleko datudun fitxategiei buruzko legearen aurreikuspen eta xedapenetara.

Bosgarrena.- Izangaien onarpena eta proba ariketak egitea.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Alkatetzak onartuko du behin behineko onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda, adierazita, azken kasu horretan, baztertzearen arrazoa. Ebazpen hori jende aurrean publikoa egingo da 5 baliiodun eguneko epean zehar, Audio Udalaren iragarkien taulan eta web orrian ipinita www.laudio.eus

Interesatuak 10 baliiodun eguneko epea izango dute baztertzearen aurka erreklamatu, hutsegitea zuzendu edo arauzko dokumentuak eransteke eskaerari.

Behin-behineko zerrendekiko, hala bada kasua, aurkeztuko diren dagozkion alegazioak aztertu ostean, Alkatetzak ebazpen berria hartuko du zeinen bidez onartuko duen onartu eta baztertuen behin-betiko zerrenda, argitaratu egingo dena iragarkien taulan, Audio Udalaren web atarian eta **ALHAOan**. Alegaziorik ez bada aurkezten, behin-behineko zerrenda, betirakoa bihurtuko da.

Seigarrena.- Kalifikazio-epaimahaia.

Epaimahaia hauek osatuko dute: presidente bat, idazkari bat eta hiru (3) batzordekide; Bera eraketan doituko da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 60. artikuluan xedatutakora.

Epaimahaiak aholkulari espezialistak ekarri ahal izango ditu, hautaketa prozesuko ariketei dagozkien proba batzuetarako edo guztietarako, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeko 31.2 artikuluan xedatuta dakarrenaren indarrez, euren aholkularitza eta lankidetzaren teknika prestatuta beraien espezialitateetan. Jardungo dute ahotsaz, baina boto eskubide barik.

Kalifikazio-epaimahaiko kideek ez dute parte hartu behar, Korporazioko Presidenteari jakinarazita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideko 30/1992 legeko 18. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat bateratzen denean; aldi berean, izangaiek errefusa ditzakete aipatu den lege horretarako 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoen arteko bat batera suertatzen denean.

Gutxienez ere Epaimahaia eratzen duten kideen erdiek eduki beharko dute hautatze prozesuan parte hartzeko exijitutako ezagutza arlo berberari dagokion titulazioa eta kide guztiek eduki beharko dute eskatutakoaren pareko, maila bereko edo goragoko titulazio akademikoa.

Epai-mahaikide guztiek dute hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea, Idazkariak izan ezik; ez du azken eskumen hori izanen. Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen arteko bozka gehiengoz hartuko dira. Berdinketa kasuan lehendakari arituko denak ebatziko du bere botoaz.

Kide anitzeko organoko titularra kanpoan edo gaixorik badago, edo, oro har, bidezko arrazoirik bada, ordezkoa jarriko da haren tokian, ordezkorik izanez gero.

Epaimahaiak aurkeztuko zaizkion zalantzak erabakitzeko eta oinarri hauetan zehaztuta ez dauden kasuetan hautaketa prozesuaren ordena eta garapen egokirako behar diren erabakiak hartzeko ahalmena du.

Euskararen ezagutza probari dagokion epaimahaiko batzordekidea IVAPek izendatuko du, salbu eta berriazko izaeraz beste gauzaren bat erabaki.

Epaimahaia osatzen duten pertsona titular eta ordezkoen izendun zerrenda argitaratuko da hautatze prozesura onartutako eta baztertutako zerrendarekin batera.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka jarri ahal da gora jotzeko errekurtoa Laudio Udaleko alkatearen aurrean, iragarkien taulan ebazpena argitaratuta azaldu den biharamunetik hasitako hilabete bateko (1) epe barruan.

Aldi berean gauzatu ezin litezkeen frogetan, izangaien jarduera hurrenkera alfabetikoa izango da, Administrazio Publikoen Ministerioak urtero egin ohi duen zozketarekin bat.

Zazpigarrena.- Hautatzeko prozesua.

Hautaketa burutuko da oposizio-lehiaketa sistemaren bitartez.

Behin betiko sailkapen hurrenkera zehaztuko da, lehiaketa fasean eta oposizio fasean lortutako puntuazioak batu ostean.

Oposizio fasea

Oposizio faseko ariketa bakoitzaren puntuazioa publikatuko da Laudioko Udaleko ira-

garkien taulan eta eskainiko da 10 baliiodun eguneko epea, erreklamazioak aurkezteko, publikazio horren biharamunetik hasita.

Oposizio faseak hurrengo ariketa hauek izango ditu:

Lehen ariketa: epaimahaiak zehaztuko duen edo dituen proba praktikoa/k egitean datza. Horiek izango dira plangintzaz, udal hirigintza-diziplinaz edo kudeatzeaz, hala nola aplikaziokoa den sektoreko araudiaren ezagutzaz; esaterako: Ingurumena eta kutsatutako lurzorua, Araudi hidraulikoa eta ibai-bazterrak babestekoa, Errepide eta bideei buruzko araudia, Kultur ondarea, nekazaritza eta basozaintza babesteko erregelamenduak, Etxebizitza, Ekonomia eta merkataritza jarduerak, e.a. Froga praktikoa hori izan ahalko da txosten bat egitea gai horiei buruzko udal espediente bati buruz.

Ariketa hori nahitaezkoa izango da eta baztertzailea, eta kalifikatuko da 0-80 puntu bitartean. Gainditzeko lortu beharko dira, gutxienez, 40 puntu.

Bigarren ariketa: izango da froga idatzi eta ahozkoak egitea euskararen 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen zuzendutakoak. Horren hizkuntza gaitasunak azalduta daude Euskadiko Autonomia Elkartearen administrazio publikoetako euskararen erabileraren normalizazio arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren eranskinean, halako moduz ezen epaimahaiak erabakiko duen, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen IVAPen emandako jarraibideak jarraituta, Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 99.1 artikuluan xedatuta dakarrenarekin bat.

Salbuetsita geratuko dira hizkuntza-eskakizuna egiaztatzenetik titulu hori edo beste baliokide batzuen jasi diren izangaiak, euskarazko titulu baliokidetzaz eta euskararen ezagutzak egiaztatzeneko ziurtagirien eta Hizkuntzetarako Erreferentziazko Oinarrizko Esparru Markoko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat.

Salbuespen horrek eragina izateko, aurkeztu beharko dute titulu horietakoren baten kopia, dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeneko frogak egiteko eguna baino lehen.

Ariketa hori nahitaezkoa eta baztertzailea izango da eta gai edo ez gai kalifikatuko da.

Lehiaketa fasea

Oposizio Fasea gainditzen duten izangaiak Lehiaketa Fasera iritsiko dira.

Merezimenduak:

Lehiaketan, aztertu eta balioetsiko dira izangaiek adierazi eta egiaztatutako merezimenduak eta hori egingo da esleituz merezimendu bakoitzari dagokion puntuak deialdiko baremoaren arabera. Inoiz ere ez, ezin izango dira baloratu aurkezteko ezarritako epe barruan behar bezala alegatu eta ziurtatu ez diren merezimenduak.

Soilik hartuko dira kontuan eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte irabazitako edo lortutako merezimenduak.

Epaimahaiak baloratuko dituen merezimenduak hurrengoak izango dira (gehienez ere 35 puntu arte):

- Administrazio publikoan prestatutako zerbitzuak arkitekto legez, beste inoren konturako edozein lan araubidetan (funtzionarioa edo lan-legekoa). 0,60 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, eta 20 puntu, gehienez.

- Administrazio publikoan prestatutako zerbitzuak, zerbitzu-kontratu batekin arkitekto legez, bete beharreko lanpostuko eginkizun eta zereginetako gaietan: 0,30 puntu ordu bakoitzeko, gehienez ere puntu 10 arte.

Ez da zenbatuko denbora aldi berberari buruzko aldi bereko eskarmentu edo esperientziarik.

Administrazioko lan eskarmentuari buruzko merezimenduak zuritzea eta justifikatzea egingo da zerbitzuen ziurtagirien bitartez, espezifikatuta kontratuaren iraupena edo izendapenarena eta gauzatutako funtzioak. Enpresa pribatuan izaniko lan eskarmenturako ezinbestekoa izango da lan-kontratua eta Gizarte Segurantzako lan-bizitzaren ziurtagiria.

- Lanpostuarekin erlazionatutako ikastaroak egitea:

20 ordu arteko iraupen ikastaroa: 0,05 puntu.

21 eta 40 ordu arteko ikastaroa: 0,10 puntu.

41 eta 80 ordu arteko ikastaroa: 0,20 puntu

81 eta 100 ordu arteko ikastaroa: 0,30 puntu.

100 ordutik gorako ikastaroak: 0,40 puntu.

Baloratu ahal izateko eginiko ikastaroen dokumentu egiaztatzaileak, IVAPek edo zentro ofizial aitortuak emanikoak izan behar dira eta jasoarazi beharko dute ikastaro horren ordu zenbatekoa. Froga horren balorazioa 5 puntukoa izango da gehienez.

Epaimahaiak merezimenduen balorazioa egin ostean, aginduko du publikoki erakustea izangaien zerrenda, bakoitzak lortu dituen puntuekin, iragarkien taulan eta Laudio Udalaren web orrialdean, alegazioak aurkezteko 10 egun naturaleko epea eskainita.

Zortzigarrena.- Gaindituen zerrenda, kontratazio proposamena eta lan poltsa.

Behin betiko sailkapen hurrenkera zehaztuko da, lehiaketa fasean eta oposizio fasean lortutako puntuazioak batu ostean.

Berdinketa kasuan, hori ebatziko da oposizio faseko lehen ariketan puntuaziorik altuena lukeen izangaiaren alde eta, hala ere, horrela berdinketa ezin bada desegin, hori zozketaz ebatziko da.

Aurreko paragrafoan arautuaren kalte barik, otsailaren 18ko Emakume eta gizonen berdintasunerako Eusko Legebiltzarreko 4/2005 Legeko 20.4 a) artikuluan xedatutakoarekin batera, gaitasun berdinarekiko, lehentasuna emango zaio emakumeari, emakumearen ordezkapena ehuneko 40 baino gutxiagokoa den plazetan, salbu eta beste izangaiaren batera biltzen badira beste arrazoi batzuk, sexu arrazoiagatik bereizkeria ez izanik, neurri horren ezarpena eta aplikazioa justifikatuko luketenak, hala nola enplegurako sarrera eta sustapen zailtasunak bereiziekiko beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Epaimahaiak argitaratuko du iragarkien taulan eta Audio Udalaren web orrian lan poltsa prestatzeko beheranzko puntuazio hurrenkeraz gaindituen zerrenda.

Behin betiko emaitzak argitaratzen direnetik hasita, izangaiek 10 eguneko epea izango dute Epaimahaiaren aurrean erreklamazioak aurkezteko. Behin epe hori amaituta, Epaimahaiak aurkeztuko dio Alkatetzari behin betiko proposamena lan poltsa sortzeko izangai gaindituekin horiek lortutako beheranzko puntuazio hurrenkeraz eta proposamen horrekin bat jakinaraziko zaie interesdunei 10 egun naturaleko epe barruan aurkezteko deialdian exijitutako gaitasun eta betebeharren baldintzen dokumentu egiaztatzaileak. Guztirako beheranzko puntuazio hurrenkeraz lan poltsa onartuko duen Alkatetzaren ebazpena argitaratu egingo da iragarkien taulan eta Audio Udalaren web orrialdean.

Aipatutako epe barruan dokumentazio aurkezten ez dutenak, edo dokumentazio hori aztertzetik ondorioztatzen bada oinarrietan exijitutako betekizunen bat ez dutela, ezin izango dute parte hartu lan poltsan eta baliogabetuta geratuko dira beraiekiko gauzatutako ekimen guztiak, hasierako eskaeran faltsutasunagatik izan lezaketen erantzukizunaren kalte barik.

Lan poltsa edo itxaron zerrenda eratuko da froga guztiak gainditutako eta proposatuak suertatzen ez diren izangaiekin, hautatze prozesuan lortutako guztirako beheranzko puntuazio hurrenkeraz eta horrek balioko du postu hori betetzeko, bitarteko izaeraz, hutsik geratze edo gaixotasun kasuetan eta betetzeko beharrizan gorria dagoenean.

Lan poltsaren funtzionamendua erregulatuko da Audio Udaleko lan poltsak kudeatzeko irizpideen Akordioan erabakita dakarrenarekin bat.

Bederatzigarrena.- Gorabeherak.

Epaimahaia ahalmenduta geratu da aurkez dakizkiokeen zalantzak ebazteko eta hautaketa prozesuaren ordena onerako behar diren erabakiak hartzeko. Oinarri hauetan aurreikusi gabekoan, ordezeko aplikaziokoa izango da Estatuko administrazioaren zerbitzurako langileen sarrerako Erregelamendu orokorra onartu zuen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuan ebatzitakoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutua, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea eta gainerako bateratsu datozen xedapenak.

Hamargarrena.- Aurkaratzeak.

Nola deialdia hala oinarria, edo oinarrietatik eta epaimahaiaren jardunetik eratorritako egintza administratibo guztiak, aurkaratu ahalko dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Jardunbidearenak, aurreikusitako modu eta epeetan.

Erabaki honekin Administrazio bidea amaitu da. Erabakia aldekoa izan ala ez, aurkaratu nahi izanez gero, Administrazioarekiko Auzitara jo aurretik berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke jakinarazpena jaso denetik hasita hilabete bateko epearen barruan. Hala ere, zuzenean jar daiteke Administrazioarekiko auzia aurkarapen egilearen aukeraren arabera Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian edo bere aurkaratzailearen helbideko Administrazio Auzitegian, erabakia argitaratu eta bi hilabeteeko epearen barruan.

Guzti hori, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, 109 c) 116, 117 eta batera datozen artikuluetan xedatutakoaren arabera, hala nola uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzitarako Juriskikzioaren 29/1998 Legeko 8, 14, 25, 46, eta batera datozen artikuluetan.

Eta hori , egikaritzea egoki irizten den beste edozein egintza edo errekurtsoren kalterik gabe.

Laudio, 2015eko martxoaren 6a.- alkatea, Jon Iñaki Urkixo Orueta.